

*Toti Martínez de Lezea*



# EGUNSENTIKO ARGIA

**poltsiko.e**

## EGUNSENTIKO ARGIA



© Alberto Albaiz

**Toti Martínez de Lezea**, Gasteizen jaio zen, 1949an, eta Larrabetzun bizi da. Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaile izan zen, eta itzulpen lanez gainera, gidoiak, hezkuntzako bideoak eta telebistarako haur saioak egin zituen, 1983 eta 1992 urteen bitartean.

1998an argitaratu zuen lehenengo eleberria: *La calle de la judería (Judu-kale)*. Haren ondoren etorri ziren: *Las torres de Sancho (Antsoeren dorreak)*, *La herbolera (Kattalin)*, *Señor de la guerra*, *La abadesa (Maria Galanta, abadesa)*, *Leyendas de Euskal Herria (Euskal Herriko leiendak)*, *Los hijos de Ogaiz (Ogaiztarrak)*, *La voz de Lug*, *La Comunera*, *El verdugo de Dios*, *La cadena rota (Hautsi da katea)*, *Los grafitis de mamá*, *A la sombra del templo*, *Brujas (Sorginak)*, *La Brecha*, *El jardín de la oca*, *Placeres reales*, *La flor de la argoma (Otalorea)*, *Perlas para un collar (Ángeles de Irisarriekin batera idatzitakoa)*, *La Universal*, *Veneno para la Corona (Pozoia Koroari)* eta *Marcas (Urak dakarrena)*.

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

EGUNSENTIKO ARGIA

Itzulpena:  
Koro Navarro  
Rosetta Testu Zerbitzuak

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Jatorrizko izenburua:

*Itahisa*

Azala eta bildumaren diseinua:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Koro Navarro

Rosetta Testu Zerbitzuak

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-876-3

L. G.: SS-578/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.com](mailto:erein@erein.com)

[www.erein.com](http://www.erein.com)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

*Maribeli*

## 1800

**L**ehendabizi zurrumuruak izan ziren, esamesak, beste asko bezalako berriketak, inoiz gertatzen ez ziren gauzei buruzkoak izaten baitziren; baina, halako batean, non ikusten duten bailarako biztanleek igeltsero eta arotz talde bat iristen, eta, kapataz batek zuzendurik, muinoaren gorenean erdi erorian zegoen etxe zaharra berritzen hasten. Aragoitu ziren orduan jendearen berritsukeriak, baina usteak besterik ez ziren, fantasia gehiago edo gutxiagorekin, batere oinarririk gabeak. Inork ez zeukan lehen eskuko informaziorik, eta langileek besaburuak goratu besterik ez zuten egiten norbaitek obraren zergatiaz galdetzen zuenean, hamabost urtetik gora baitzeramatzan eraikinak abandonaturik. Noizik eta behin, dotore jantzitako zaldun bat agertzen zen zalgurdi batean, kapela luzea eta guzti; lanak nola zihoazen begiratzen zuen, eta kapatazarekin berriketan egoten zen. Elkarrekin bazkaltzen zuten bailarako auzo jendeztatueneko taberna bakarrean, zeina “Koloka” delako baten jabetza baitzen. Goldean ari zela hanka bat galdu zuelako zuen tabernariak ezizen hura,

eta, ezin zuelarik baratzeez arduratu, taberna eta denda bihurtu zuen baserria, erdia eta erdia. Era horretan jakin zen herrian zaldunak Bartolome Olabe zuela izena, eta Julianen legezko ordezkaria zela, zeina Gerbasi Zautuolaren –hari, Gerbasiri, “Gorri”, deitzen zioten, inork ez zekien zergatik– eta bere emazte Migela Arizen –hilak biak– semea baitzen. Olabe jaunak etxe bat zeukan bailaran, baina ez zuen ia erabiltzen, normalean Bilbon bizi baitzen. Jakin zen halaber jabea etxetzarrean bizitzeko asmoz itzultzekoa zela, eta, hala, jendea isildu gabe aritzen zen hura zela-eta, normalean oso berri gutxi izaten baitzen mendiz edo zelaiez inguraturiko paraje eder hartan.

Inor ez zen ondo gogoratzen Julian Zautuolaz. Hamabost urte asko ziren, inguru hartako beste gazte asko bezala, etorkizun hobe baten bila itsas bideetara joan zen mutil batez gogoratzeko. Era berean, inork ez zekien nora eta noiz joan zen. Egun batean desagertu egin zen, besterik gabe, eta, denbora pasatuta, jendeak ahaztu egin zuen, nahiz eta orain, bere edade berekoak, edo antzekoak, oroitzapenak berreskuratzen saiatzen ziren, memoria-zatiak gogora berriz ekartzen, alferrik ordea. Zautuola etxea herritik aparte zegoen, harizti batek eta urte haietan guztietan inor garbitzen nekatu ez zen sasidi batek ezkututzen zuela. Azken jabeak, Gorri eta bere emaztea, pertsona atzekak ziren eta ez ziren ia behin ere jendaurrean agertzen, igandeko mezetan eta hiletetan izan ezik, eta semea ere nahiko mutur-luzea zen, eta ez zen ibiltzen gainerako gazteekin festa eta erromerietan. Hortaz, ez zen zer gogoratu askorik.

Gaia epeltzen hasi zen, baina, halako batean, egiaz harrigarria zen albiste bat jakinarazi zien Kolokak bere bezeroei, obrako buruari zuzenean esaten aditu baitzion. Baserri zaharreko behe-solairuko lurra harrotu zutenean, emakume baten



hondakinak azaldu ziren lurperaturik garai batean ukuilua zegoen tokian; begi-kolpe hutsez ikusten zen emakumea zela, hezurak estaltzen zituzten gona, txanbra eta tokilla ondo baitzeuden. Ezerk ez zuen aditzera ematen emakume haren heriotza bortxazkoa izan zenik. Are gehiago, eskuak bularraren gainean gurutzatuak zeuzkan, lizar-adarrez egindako gurutze bati eutsiz. Baina zalapartarik handiena beste gauza batek sortu zuen; izan ere, hildako emakumearen hezurren artean beste hezur batzuk ere agertu ziren, txiki-txikiak, dudarik gabe izaki jaiogabe batenak zirenak, sendagileak jakinarazi zuenez, bikarioari, alkateari eta hirurei aldi berean deituta.

–Era honetako gauzak agintariei jakinarazi behar zaizkie –argitu zuen obra-buruak–, gero bestela arazoak etortzen dira.

Gizonak ezin izan zuen informazio gehiago eman. Goiz hartan bertan egin zen aurkikuntza, eta alkateak obra gelditzea eta Diputazioari gertatuaren berri ematea erabaki zuen. Era berean, Olabe jaunari ere jakinarazi zitzaion gertatua, eta beranduena ere biharamunean agertuko zela espero zen.

Gau hartan inon ez zen beste hizketagairik izan, eta besterik ez zen aipatu bailarako sukaldetan. Gizon-emakume asko bizilagunen etxeetan ere bildu ziren, auziaz jarduteko; beste batzuk alkatearen baserrira joan ziren, lehen eskuko informazioa eskuratzeko xedeaz. Alabaina, alkateak ezin izan zion gauza handirik erantsi langileburuak esandakoari. Ezkontzak eta bataioak ez bezala, heriotzak ez ziren beti-beti erregistratzen, hildakoen izenak aipatzen baziren ere herentziak eskualdatzen zirenean. Gauza da inork ezin zuela argibiderik eman ume baten esperoan zegoen emakume ezezagun hartaz, eta, handik bost egunera, igandeko sermoian, arratsalde hartan bertan lurperatuko zirela Zautuola etxean aurkituriko hondakinak jakinarazi zien eliztarrei don Aureliano bikarioak,

sagaratu gabeko lurtean, alderraiei, suizidei eta arrotzei lur ematen zitzaien lekuan, kasu hartan ere hala zegokion-eta. Diputazioko forentse batek eta funtzionario batek hezurak aztertu eta agiri bat idatzi zuten aurkikuntzaren berri xeheki emanaz. Azterketaren ondoren, forentseak adierazi zuen ez zela han heriotza makur baten arrastorik nabari, eta emakumea urte batzuk lehenago hila zela, haurdunaldiaren ondorioz agian, data zehaztu ez zuen arren. Motiborik ez zen, beraz, hondakinak lurperatu gabe edukitzeko. Auzoko gutxiak huts egin zuten ehorzketa, partez ukuilu batean itxitako emakume ezezagunaz eta bere umeaz errukitzen zirelako, eta partez inork ezer jakin gabe zendutakoa bailara hartan bizi zela jakiteak zekarren morboagatik. Hurrengo egunean hasi ziren osteria ere etxea berriztatzeko lanak.

Asteak igaro ahala, etxe ederra bihurtuz joan zen ordu arte hondakina besterik ez zena: lau isurkiko teilatua, harlanduzko paretak eta egur bikaineko ateak eta leihoak. Sastrakak eta sasiak kendu, eta etxea kamioarekin lotzen zuen ibilbidea harriztatu zuten. Hariztia, ordea, bere hartan utzi zen, eta lau oineko altuera zuen harresi bat eraiki zen jabetzaren inguruan, argi utziz horrela nagusi berriak ez zuela gizarte-harremanik nahi. Bailarako jendea sekula ez zitzaion bururatuko etxea modu hartan inguratzea; izan ere, halako gauza batek, nolabait ere, auzokoen zintzotasunari egindako laido bat esan nahi zuen. Langileek alde egin ondoren, hogeitaur gurdi ailegatu ziren, hori gutxienez, altzariz eta trastez gainezka. Olabe jaunaren zalgurdia zihoan karabanaren buruan, bere armadaren gidari doan jeneralaren modura, jakin-min are handiagoa ernatuz herriko jendearen artean, emakume eta haurren artean batez ere. Batzuen batzuk, oihal lodien azpian ezkutaturiko altzariak ikusi nahian, harresian irekitako burdina-hesiaren bi aldeetan jarri ziren, baina ezer ikustea ez zuten lortu. Sartu ziren gurdiak

etxeko lurretan, deskargatu zituzten eta, altzariak eraikinaren barruan utzita, alde egin zuten berriz. Baso-erdi bat edatera ere ez ziren mandazainak Kolokaren tabernan gelditu.

Lau zerbitzari ere etorri ziren abokatuarekin batera, bi gizon eta bi emakume, eta etxean itxi ziren bostak, itxuraz, hala esan zuten, etxea txukuntzen eta den-dena ondo prestatzen, jabea berehala ailegatuko baitzen. Hantxe ikusi zituzten zerbitzariak, leihoak garbitzen, alfonbrak astintzen eta bide harritzatua eskobatzten, baina ez ziren auzora jaitsi. Igandetan mezetan ikusten zituzten, baina, agurrei erantzun besterik ez zuten egiten, berriketan hasi gabe. Olabe jaunak alde egin zuen osterara ere, baina, aste batzuk igaro zirenean ezer berririk gertatu gabe, eta ia inork ez zuenean jada gaia aipatzen, udaberri-hasierako larunbat eguzkitsu batean, hantxe agertu zen berriz ere zalgurdi batean. Orduko hartan, pertsona batzuek ikusi ahal izan zuten beste jaun batekin zetorren; abokatuaren aldamenean eserita zegoen, eta zalgurdiak mendialdera zihoan artalde bati pasatzen uzteko gelditu behar izan zuenean ikusi zuten. Albistea segituan zabaldu zen, eta gau hartan hura izan zen Kolokaren tabernan hizketagai bakarra.

Biharamunean ase zuten bizilagunek beren jakin-nahia, mezetan, bi jaunak elizan agertu baitziren, atzetik lau zerbitzariak zituztela, ezkilak elizkizunaren hasiera seinalatzen zuen unean. Oinez heldu ziren eta alkateak berak agurtu zituen; bi jaunekin hizketan aritu zen zenbait minutuz, eta gero eliz barrura lagundu zien, gizonen aldeko lehen bankua seinalatuz, segituan bidali zituztelarik bi eliztar handik, tokia libre uzteko. Zerbitzariak atzealdean geratu ziren eta meza bukatu orduko alde egin zuten, bikarioak, medikuak eta bailarako jauntxoek abokatuarekin etorritako jauna atarian agurtzen zuten bitartean. Gainerakoak, gizon-emakumeak, urruti samar geratu ziren, etorri berria bistatik galdu gabe.

Izan ere, bertako semea zen, baina guztiz arrotza zen denentzat.

Julian Zautuolak itxura ikusgarria zuen, hori gutxiena; gizaseme altua eta lerdena zen, hazpegi orekatuak zituen, bizarra ezin txukunago egina, eta ilea luze samarra. Lebita arrekolore bat zeraman, papar-hegal zabalekoa, txaleko motz bat aurrealdea plisatua zeukan alkandora zuriaren gainean, eta gal-tza estuak, beix-koloreak; janzkera osatuz, bota motzak, kapea luzea, zapi zuri bat lepoan lotua eta zilarrezko heldulekua zeukan makila bat zeramatzan. Halako moduan nabarmentzen zen gizon haren irudia, non ezinezkoa baitzen ez begiratzea. Sekula ez zen inguru haietan hain pertsona dotorea ikusi, hainbestearino ezen ez baitzen dudarik gizon hura aberatsa zela, oso-oso aberatsa. Haren aldamenean, baserritarrak ematen zuten bai Olabe jaunak bai don Alfonsinok berak ere. Inork ez zion begirik kendu harik eta, aurkezpenak eta agurrak bukatuta eta bere ordezkaria lagun zuela, berriz etxera abiatu zen arte; herritarrek era guztietako iritzia agertzeko baliatu zuten abagune hura.

Ez zen oso ondo ulertzen zergatik bueltatu zen gizon hura Zautuolara, zeren, argi zegoen, fortuna egina baitzen Jainkoaren mundu horietan. Ez zen bakarra. Bailarako beste seme batzuk ere joan izan ziren Ameriketara eta baita han ederki aberastu ere, baina ez ziren familiaren etxera itzuli. Gehienera ere, bueltaren bat egiten zuten handik senideen eta bizilagunen aurrean beren oparotasuna erakutsiz, baina gero Bilbon hartzen zuten egoitza, edo Jaurerriko beste leku garrantzitsuren batean. Indiano hark –hala deitzen baitzioten ordurako– gurasoen etxea berriztatu eta bertan bizitzen geratzeak berak ideiarik xelebreenak sortu zituen. Batzuen iritzian, konpondu gabeko auziren bat zeukan gizon hark justiziarekin, eta ba ote zen bailara baino ezkutaleku hoberik? Baina beste batzuek

kontra egiten zioten iritzi horri, eta etxe zaharraren berrikuntzak zekarren kostua aipatzen zuten, hornigaiez beteriko gurdiak, eta lau zerbitzarien etorrera.

–Lau! –oihu egin zuen Mikaelak, Kolokaren emazteak–. Ikusi al da sekula inon halako nabarmenkeriarik?

Baziren ezin sendatuzko gaixotasun bat izan zitekeela esaten zutenak ere. Gizona hiltzeko zorian zegoen, eta jaio zen lekuan eman nahi zituen geratzen zitzaizkion egunak.

–Horrek gaixo itxurarik ez du –esan zuen Mikaelak–. Gainera, hiltzera etortzeko ez zituen horrelako dirutzak etxea konpontzen gastatuko.

Baina bazen beste aukera bat ere. Gizona bakarrik etorri zen, emazterik eta seme-alabarik gabe. Alargundu egingo zen beharbada bizi zen tokian, eta dolua arintzera itzuli zen. Edo ezkongabea zen, eta emazte bila zetorren. Ez zen aurreneko aldia izango indiano bat poltsa ondo beteta zetorrena herrira, ezkontzera eta seme-alabak izatera. Baina kasu haietan konpromisoa postaz egiten zen normalean, eta bikarioa arduratzen zen bitartekari-lanez.

–Emaztegai-faltan ez da bada ibiliko! –Tabernariaren emaztea zen berriz hizketan–. Bat baino gehiago dago hemen neskazahartzeko bidean, eta edozer emango lukete gizaseme aberats eta, gainera, itxura ederreko batekin ezkontzeko.

Azken iritzi horretakoek asmatu zuten.

Julian Zautuola bailarara ailegatu eta aste gutxira, Antonio Ernanirekin tratuetan zebilela jakin zen. Antonio hark hiru baserri eta lurra erruz zeukan, eta alaba bat, Inexa, eta Julian harekin esposatzekotan zen. Inexak hemezortzi urte zituen eta neska isila zen eta ez oso ederra, baina oso emakume ona omen zen bizilagunek esaten zutenez, beti prest egoten zen edozertan laguntzeko, eta langile amorratua eta oso neska garbia omen zen. Zorioneko neskaren amaren ahotik jakin zen

albistea. Jazintak arantza bat zeukan bihotzean sartua, ezin izan baitzen akordio batera heldu Torrezardarrekin alaba familia hartako seme zaharrenarekin ezkontzeko, biak adin berrekoak izanik. Mutila beste neskatxa baten atzetik zebilen, eta ezezko biribila eman zion Ernaniren alabarekin ezkontzeari, nahiz eta dotea ederra izan, eta ederragoa etorkizuneko herentzia, Inexa baitzen bere gurasoan oinordeko bakarra.

–Torrezarrekoek ez zuten nahi izan, eta ordu onean! –aipatu zion Jazintak Mikaelari, upel txiki bat pattar betetzera tabernara joanda–. Zautuolarekin ezkonduko da Inexa orain, eta hori askoz ere proportzio hobea da.

–Ez ote da zahartxo zure alabarentzat? –galdetu zuen tabernariak.

–Zer esaten duzu! Gizon heldua eta eskarmentuduna da, alde ederra ezertarako ere balio ez duten umemoko horiekin!

Jazintaren hitz garratz haiek esamesak areagotu besterik ez zuten egin: batzuek zioten Ernaitarrek errebantxa moduan onartu zutela indianoaren proposamena eta, besteek, berriz, ezingo zutela alabarentzat gizon hoberik aurkitu pentsatzen zuten. Alabaina, denei iruditzen zitzairen presakako kontua, inork ez baitzekien oraindik ezer gizonaz, ez kanpoan hainbeste urtean egin zuen bizimoduaz, ezta zer modutan eskuratu zuen bere fortuna ere.

Bikarioak pulpitutik iragarri zuen ezkontza, behar zen bezala, eta elizako atean iltzatu zituen ezkondeiak, inork eztei haien kontrako eragozpenik balu ere. Ezkontza handik bost hilabetera ospatu zen. Eztei-eguna, iraileko larunbat bat, grisa atera zen, eta ezkonberriak elizatik ateratzen ziren unean mehatxua ur bihurtu zen. Kontu txarra. Hiletetan ongi etorrria izaten zen euria; seinale ona zen zenduaren arimarentzat, euritan errazago aurkitzen baitzuen beste mundurako bidea. Ezkontza batean, ordea, justu-justu kontrakoa esan nahi

zuen. Alabaina, eztei-jarraigoa zirimiriazen azpian abiatu zen emaztearen gurasoen baserrira, eta hantxe egin zen banketea, senideekin eta bailarako handikiekin. Bazkariaren ondoren, zalgurdi batean abiatu zen bikotea Zautuola etxera, une hartan euria baldeka ari baitzuen, eta ezin izan zen eztei-jarraigoa berriz antolatu. Bi idi-pareak, kaskabiloak lepoan eta azkonar-larruak lepoan, Ernani baserriko ukuiluan geratu ziren, andregaiaren dotea zeukaten bi gurdiak bezala: altzariak, mahai-zapiak, txanbrak, azpiko gonak, zapiak, maindireak... Bizi berri bat hasteko modu bitxia zen, edo, hobeto esanda, zoritxarreko modua zen. Bailaran inork ez zuen gogoratzen hain alaitasun gutxiko ezkontzarik. Bizilagunek ezin izan zuten ezkontza ospatu ezkonberriei etxera lagunduz, trikitiarekin eta panderoarekin, kantuan, dantzan, eta, bide batez, senar berriaren kontura edanez, Kolokaren eta are gehiago Mikaelaren nahigaberako, diru gehixeago irabaziko zutela egun hartan espero baitzuten haiek.

Lau zerbitzariak egin zieten harrera Juliani eta Inexari, eta haiek lagundu zieten, ate batek bereizirik, elkarren ondoan zeuden geletara. Arrunt lotsatuta, neskak erantzten utzi zien neskameci, lotarako atorra janzten eta bere ile luze gaztainakolorea eskuilatzen. Ez zegoen neskameak izatera ohitua, eta eskerrak ematen ere ez zuen asmatu biak gelatik atera zirenean, bera egur landuzko eta urre-koloretan polikromaturiko ohe batean geratzen zen bitartean. Gasazko errezelak ere bazituen, eta Inexak bizitzan aurreneko aldiz ikusten zuen horrelako ohe bat. Ikarak airean zegoen. Amak azaldu zion, oso axaletik, zer espero zen emazte batengandik ezkontza-gauean, baina arrotz bat, arrotza zen-eta, bere ohean sartu eta egitea... egiten zen zena zelako hura, hura pentsatzeak, esposatu behar zuela jakin zuen une beretik galarazi zion loa. Felisa bere lagunak ez bezala, batere gogorik ez zuen Inexak emakume

ezkondua izateko. Neskazahartu ere ez zuen nahi, eta moja sartzea ere ez zitzaion burutik pasatu. Presarik ez zeukan, eta bailarako mutilen artean espero zuen senargaia aurkitzea, berak ezagutzen zuen gizasmeren bat, berarekin erromerian ibilia edo Patroi Santuaren jaietan berarekin dantzan aritua. Gizon hark, orain senarra zuenak, ikaratu egiten zuen. Bi esaldi segidan ez zituen esan ezkontzaren aurreko hilabeteetan, eta ama edo izeba Anjelita aurrean zirela beti. Alabaina, heziera onekoa agertu zen beti gizona. Ezkontza-eskaerako eraztun zoragarri bat ere oparitu zion: diamanteak txertatuak zeuzkan lore bat, urrezko eta zilarrezko uztai batean sartua. Inexa, txundituta, aho zabalik geratu zen. Bitxi bakarra izan zuen bitzita osoan, urre apalezko gurutze bat, bere amandarearen oparia, eta eraztun hura egiazko altxorra iruditu zitzaion.

Logaleak zegoen, eta leher egina, azken egunetako joan-etorri eta nerbioekin. Ohea ikaragarria zen pertsona bakar bantentzat, baina koltxoi bigunak, kotoi finezko maindire parpailadunak –txean erabiltzen zituzten eta garbitu ondoren egurra bezain gogorak geratzen ziren lihozko maindireen hain bestelakoak–, egiazko luxua zen ohe-tapaki betegarridunak... den-denak gonbidatzen zuen lotara. Azken finean, senarrak ez zuen agian berarekin oheratu nahiko. Zergatik, gela banatan bazeuden? Ez zen normala. Beraren gurasoek logela eta ohea partekatzen zituzten. Beharbada, berak ez zekien arrazoiren batengatik, gizonak ezin zuen, edo ez zuen nahi, edo... Inexak begiak itxi zituen eta lo geratu zen. Ez zuen aditu aldameneko gelako atea zabaltzean egin zuen soinua, ez zuen nabaritu maindireen azpian sartu zen gorputza, ezta atorra leporaino jaso zioten eskuak ere. Kolpetik esnatu zen, gizonaren zamari bere gainean igarri, eta ondoren urratu zuen oinaze zorrotza sentitu zuenean. Intziri bat atera zitzaion eztarritik, baina ez zen ahora ailegatu; gizona musuka



ari zitzaion, baina halako amorruez, non Inexak itoko zela pentsatzen baitzuen. Hilko zela uste izan zuen denbora batez sentitu zuen gizona bere barruan, aztoratua, arnastetua, bularrak eskuztatzen zizkiola, musuak emanez, mina eginez. Uko egin nahi izan zion, gainetik kentzen saiatu zen, baina ezin izan zuen; indarririk ez zuen gizon hari buru egiteko eta, gogoia hustuta, nahi zuena egiten utzi zion. Eraso kolpetik gelditu zen; gizona berarengandik apartatu eta aldamenean geratu zen, hitzik esan gabe. Inexa ez zen mugitu, arnasa hartzera ere ez zen atrebitzen; bustia, zikina sentitzen zen. Puska baten ondoren, poliki-poliki, atorra jaitsi eta eskuekin estali zuen bere gorputz zauritua, beste eraso batetik babes-teko bezala.

Goiz-erdia bazen esnatu zenerako, baina ez zituen begiak zabaldu seguru jakin arte bakarrik zegoela ohean, ez zuela Zautuolako jaunaren arnasa aldamenean aditzen. Orduan burua jiratu zuen, eta gizonak burkoan utzitako zuloari erreparatu zion. Ez zen altxatzen saiatu, eta ez zitzaion bururatu gau-mahaiaren gainean zegoen zilarrezko ezkilatxo astinduz neskameci deitzea. Ez zuen euririk ari, eta leihoa zabalik zegoen, beste norbaitek irekita. Belar bustiaren usaina gustatzen zitzaion, baina goiz hartan leihotik sartzen zen uda-bukaerako haize mehea bera ere zakarra iruditu zitzaion. Bere gogoetetan sartua egon zen, eguzkiak agerrarazten zituen hauts-izpi txiki-txikiei begira, alferreko eginahalak eginez bezperan gertatua ahazteko.

Handik gutxira Ebelina sartu zen gelan, neskame gazteena, hankekiko erretilu bat zekarrela. Erretiluan kafesne-katilu bat eta bi ogi-zerra egin berriak zeuden, gurinarekin eta eztiarekin. Ebelinak gortinak zabaldu zituen eta ohean agontzen lagundu zion Inexari. Gero ohearen gainean jarri zuen erretilua.

–Etxekoandre, on egingo dizu eztei-gauaren ondoren zer edo zer jateak –esan zuen irribarrez–. Gero amak eta biok bainatu eta jantziko zaitugu.

Inexak ez zuen ezer esan. Ez zuen goserik, eta kafearen usainak botaka hasteko gogoa eman zion. Era berean, ezin zituen begiak apartatu bi gelak bereizten zituen atetik, arrunt izutua baitzegoen gizona noiznahi ager zitekeela pentsatuz.

–Nagusia Bilbora joan da goizean goiz, don Bartolomerekin –jakinarazi zion zerbitzariak, Inexak buruan zerabilena asmatu balu bezala–, eta pare bat astean ez dela itzuliko esan du.

Inexari kostatu egin zitzaion albistea bereganatzea; baina bereganatu zuenean, hasperen egin zuen arinduta. Bizkor pentsatu beharra zeukan. Zutitzea lortzen zuenean, gurasoen etxera itzultzea egingo zuen aurreneko gauza, gertatua kontatu eta sekula ez zela Zautuola etxera bueltatuko esango zien. Edo osaba-izeben etxera joango zen bestela; edozer gauza, leku ikaragarri hartan geratu baino lehen, gizona noiz berriz etorriko ikaragarrikeria bera egitera.

–Nagusiak gauza bat utzi du etxekoandrearentzat.

Ebelinak eskuzapiaren gainean zegoen kutxatila bat seinatatu zuen. Belusezkoa zen, eta Inexak ikusi ere ez zuen egin. Sartu zen bezain isilik atera zen gero neskamea.

Diamanteekiko belarritako batzuk zeuden kutxatilaren barruan, ezkontza-eskaerako eraztuna bezalakoak. Gauza barkarra bururatu zitzaion Inexari, bera bortxatzearen prezioa zela hura; eta bere indar guztiekin harrika bota zituen belarritakoak, ate bereizlearen kontra.

**B**ere betiko mututasunean murgilduta aditzen zion Julian Zautuolak Olaberi hizketan, gogoa beste leku batean zuela. Paisaiari begiratzen zion: kanpoan eman zituen urte luzeetan lagundu zion, urruntasunean idealizaturik, eta hara han minenez gogoratzen zituen belardiak eta basoak, zirimiria, bere jaiolekua sarritan ezkututzen zuen lainoa, ardien zintzarrien tin-tina, burdindegietako mailu handien danbatekoak, betiko ahaztua zuela uste zuen hizkuntza. Gertatuaren ondoren, ez zuen itzultzea pentsatu; ezerk ez zuen gurasoen lurrarekin lotzen, eta zenbat eta gehiago handik urrundu, orduan eta hobeto. Alabaina, denbora igaro zenean, itzultzeko premia sentitu zuen, ustez osorik erauzitako sustraiak ezkutatuak egon balira bezala, gutxiena espero zuenean kolpetik berriz ateratzeko.

–Adio, adiskide estimatua, hemendik egun batzuetara elkartuko gara berriz.

Julianek esku-keinu batekin erantzun zion abokatuari hau bere etxearen aurrean jaitsi zenean, ibar-buruan, eta begiak itxi zituen gurdi-gidariak bide lohiztatuan barna aurrera egiten zuen bitartean, Bilbo aldera.

Zergatik ez zuen Indietarako bidaia jarraitu? Zergatik erabaki zuen Kanarietako portuan geratzea? Bidaia hura amets txar beldurgarri bat izan zelako agian, berak espero zuenaren oso bestelakoa.

*Ez zitzaion zaila gertatu itsasontzirako txartel bat eskuratzea, trukean Virgen del Mar izeneko Caracasko Gipuzkoar Konpainiako merkataritza-ontzian lan eginez. Gaztea eta indartsua zen, obitua zegoen lana gogor egiten, ez zen erraz adoregabetzen, eta nekerik agertu gabe garraia zitzakeen zama astunak. Kasualitatez, gainera, ontziko kontramaisua bere bailaran jaioa zen, eta, elkar ezagutzen ez zuten arren, Julian segituan onartu zuen, jaioterria aipatu orduko. Lehenengo egunak arazorik gabe igaro ziren; azken batean, lehorrean lan egitea bezala zen, itsasontziko kulunka-mugimenduekin obitu ezkerro. Julianek kosta desagertzen ikusi zuen eta agur esan zion bere etxeari, batere damurik gabe; gero hodeiertzean finkatu zituen begiak. Bizimodu berri bat zuen zain itsasoaren beste aldean, eta iragandakoaren abantzura. Pasaiatik Cádizera inoko bidaiak ez zen txarra izan, baina handik aurrera itsasoak uxatu egin nahi zuen, edo hura pentsatu zuen behintzat Julianek bere burua ontziko kubiartan alde batera eta bestera ziboala ikusita, astinduka, janariari urdailean eusteko gauza ez zela, egurrezko oskol handia irensteko mehatxua egiten zuten olatu ikaragarri haien aurrean. Puerto de la Orotavana heldu zenean zutik egoteko ere nekez zen gauza; eskalaren baranden modukoak ziren soka lodiei helduta jaitzi zen ontzitik, eta zin egin zuen bere artean sekula berriz ez zela itsasoratuko. Kale-zulo batetik desagertu eta txabola abandonatu batean ezkutatu zen. Handik bi egunera, Virgen del Mar Indien aldera urruntzen ikusi zuen.*

*Asteak egin zituen Julianek La Orotavan nora gabe; ahal zuen lekuan lo egin zuen eta jaten gastatu zituen zeuzkan erreal bakanak, erabaki zuen arte nekazari-lan bat bilatuko zuela zer egin pentsatzen zuen bitartean. Uhartearen barrenaldera abiatu zen, eta egun oso batez ibili zen lur malkartsuetan barna arimarik topatu gabe, baina aurrera egin ahala mendien artean agertzen eta desagertzen zen kolore berdeko arrasto*

batean iltzatuta beti begiak. Azkenean, gorune batean zegoen etxalde batera heldu zen. Pinudiez inguratua zegoen. Muino batean, bi solairuko etxe bat ageri zen, karez zuritua; balkoi deigarri bat zeukan izkina batean, egur landuzkoa eta teilatu txiki batek estalia, leihoak eta ateak ere egur landuzkoak ziren, eta loreak zeuden, lore asko, pote eta baldeetan, Julian txunditua utzi zuen gauza. Bere bailaran inork ez zuen loreekin denborarik galtzen.

—Zer behar duzu hemen?

Gizon-abots zakar batek ikaratu egin zuen; baina gehiago kezkatu zen zuzenean bularra destatzen zuen moskete bat ikusi zuenean.

—Lana —erantzun zuen, kopeta beltzez behatzen zion edadeko gizonari zuzenean begietara begiratu.

—Zer lan-klase?

—Edozein.

—Ba al dakizu zuhaitzak mozten?

—Bai.

—Zoaz hara —gizonak, mosketearen kanoiarekin, pinudiko eremu jakin bat seinalatu zuen, armaren kanoiari alde hartara eraginez.

Hitzik egin gabe joan ziren biak, bera aurretik, atzetik bestea, soilgune batera heldu ziren arte. Han lau gizon eginahalean ari ziren pinua botatzen, beste bik enborrak zerratzen zituzten bitartean.

—Moztu zuhaitz hori —esan zion gizonak, mosketea oraindik ere jaitsi gabe.

Pinu gazte bat zen, ez oso lodia, eta Julian aritua zen bailaran arbolak mozten. Beste gizonak, lanari utzita, begira geratu zitzaizkion, bat baino gehiago ironia ere bazuen begiratu eszeptiko batekin, jakinik bezala norbera gauza jakin batean trebea dela eta bestea ikastuna. Julianek lurtean utzi zuen bere

zorroa, eta aizkora bat hautatu zuen motzondo baten kontra jarrita zeuden hiruretatik; aizkora ondo zorroztua zegoela ikusi ondoren, lehen kolpea ematera prestatu zen, baina lehen-dabizi hitz batzuk esan zituen isilka. Puska batean, aizkorak egurraren kontra egiten zituen ukaldiak baizik ez ziren aditu, eta soinu erritmiko hura jabetu zen basoaz, antzinako herrien alerta-deia balitz bezala. Ez zen gelditu harik eta zuhaitza, azkenik, lurrera erori zen arte.

—Ez dago gaizki —esan zuen mosketearen gizonak. Denbora-puska bat bazen arma jaitsi eta bastoi modura erabiltzen zuela—. Ba al dago jakiterik zer esan duzun hasi aurretik?

—Barkatzeko eskatu diot —erantzun zuen Julianek, kope-tako izerdia besoarekin lehortuz.

—Zeini?

—Zuhaitzari. Barkatzeko eskatu diot bota behar nuelako.

Gizonak aizkolariei begiratu zien eta hauek buruarekin baietz eginez erantzun zioten.

—Ondo da, gera zintezke “La Pinada”n. Nik Juan Domingo Pascual izena dut, eta inguruan ikusten duzun guztia-  
ren jabea naiz. Ez dut jakin nahi ez nondik zatozen, ez badu-  
zun auzirik justiziarekin, edo inor akabatu ote duzun: zure  
lana besterik ez zait niri interesatzen. Nola duzu izena?

—Julian.

—Honako hau Taoro da, kapataza —erantsi zuen nagusiak  
agure zahar bat seinalatuz, bera bezain altua, aurpegia zail-  
dua eta begi urdin bitxiak zituena—. Berak esango dizu zer egin  
behar duzun eta non topatuko duzun lotarako tokia.

Hurrengo bi hilabeteetan, egunsentitik iluntzea arte lan egi-  
ten zuen Julianek. Etzaleku batean lo egiten zuen, basoan ber-  
tan zegoen txabola batean, beste sei gizonekin batera; langile sa-  
soilariak ziren, uda erdia arte kontratatatuak. Kapataza beste  
txabola batean bizi zen. Hura harrizkoa zen eta palma-hostozko

teilatua zeukan; goiko partean zegoen, harri eta lurrezko zoruko toki batean. Uharteko antzinako biztanleen mendi sakratua begiztatzen zen handik, itxuraz lo zegoen sumendi bat, azken elurren estalki zuria ageri zuela oraindik gailurrean.

—Hori Echeide da, gaitzaren deabruaren bizilekua. Guayota du deabruak izena —azaldu zion Taorok, Julianek egur-zama batekin bere txabolara lagundu zion egun batean—. Magec babitu zuen, eguzkiaren jainkoa, eta mendi barrura eramane zuen. Gure arbasoek Achamani eskatu zioten, hura baita denaren jainkoa, Magec askatzeko, eta honek Guayota garaitu, mendian sartu eta sarrera itxi zuen. Nire aitonaren aitonaren denboretan gertatu zen.

—Zer esan nahi du Echeide hitzak? —galdetu zuen Julianek.

—Deabruaren etxea, infernua; baina orain Teide esaten diote.

—Bai gauza bitxia...

—Zergatik?

—Nire hizkuntzan ere bada etxe hitza, eta horixe esan nahi du, bizi garen tokia.

Taorok Julianengan iltzatu zituen bere begi urdinak, baina ez zuen hitzik esan. Alabaina, harrezkero, sarritan gonbidatzen zuen bere txabolan egotera, baita batzuetan bertan lo egitera ere. Elkarrekin esertzen ziren biak txabolako atean eta iluna-barrari begira egoten ziren, isilik bata eta bestea, eguzkia harri handiaren atzean desagertzen zenean eta harriak kolore gorri iluna hartzen zuenean, txingar erraldoi bat balitz bezala.

—Mendi sakratuko sua da. Guayotak pizturik mantentzen du, konoa urtzeko eta era horretan kanpora atera ahal izateko —azaldu zion—. Zuek ere suzko mendi bat daukazue zuen herrian?

Julianek irribarre egin zuen. Ez, bailaran sumendirik ez zen, bai mendiak ordea; baina ez ziren arima zanpatzen eta txiki-txikia sentiarazten zuen Echeide hura bezain altuak.

—Zu uharte honetan jaioa zara? —galdetu zion Julianek agureari, bere herriaz hitz egin beharrik ez izateko.

—Bai, ni quantxea naiz —erantzun zuen gizonak begiak Echeiden jarrita, galdera harexen zain egon balitz bezala—. Bencomo handiaren eta bere seme Bentor-en ondorengoa naiz. Haiek izan ziren Taoroko azken mentzeiak, eta Achinet gure uhartea inbaditu zutenen kontrako borrokan hil ziren. Bataioen erregistroan nire izena Pedro de Santa María bada ere, egiaz Tinguaro deitzen naiz, Tinguaro Taoro —adierazi zuen harrotasunez—. Eta zu?

—Ni bizkaitarra naiz.

Julianek ez zuen beste zeresan handirik, eta isildu egin zen.

Udaberriaren amaiera arte jarraitu zuten pinua botatzen, eta, ondoren, bikearen ekoizpena hasi zen. Zenbait astean, gizon guztiak, baita nagusia ere, muinoan tarteka ageri ziren harrizko labeak zaintzen egon ziren, beherago zeuden egoskailuetara erortzen zen likido ilunari begira; handik lehorgailuetara eramaten zuten, eta, hozten zenean, upeletan sartzen zuten. Kea batzuetan lainoarekin nahasten zen, eta gizonek nekez bereizten zuten elkar, zuhaitzen arteko itzal bihurturik. Bere amak gaueko espirituez kontaktzen zizkion istorioak gogorarazten zizkieten Juliani itzal haiek. Julianen ama oso emakume isila zen, aita bezala, baina neguko gauean, sutondoaren epelean, hitza berreskuratzen zuen. Lo zeudenei bizia kentzen zien Gauekorengan sinesten zuen, eta Haizekorengan, zeinaren abotsa aditzen baitzen haizeak zuhaitzen adarrak astintzen zituenean. Berebat sinesten zuen sorginengan, laminengan eta Beste Munduko bidea aurkitzen ez eta jadanik berea ez zen mundu batean galduak ibiltzen zirenean. Urteak ziren Julianek ez ziola amari aditzen, baina han, etxetik urruti, arrotzen artean, quantxeen deabruaren mendiak paisaia kezkgagarrri hura menderatzen zuela, gauza guztiek hartzen zuten



bestelako itxura bat. Inoiz ez zen iraganean, historian eta usadioetan pentsatzera jarri, herri bakoitza besteak ez bezalakoa egiten zuen hartan. Nolanahi ere, beraren aitak esan obi zuen bezala, haiek denak “atso zaharren kontuak”, besterik ez ziren. Denbora gehiegi zeraman agian basoan; bizimoduz aldatzeko joan zen bailaratik, baina bizimodu hura bere bailarakoaren oso antzekoa zen. Lana bukatu eta soldata kobratzen zuenean, hirira jaitsiko zen berriz ere. Alabaina, zerbaitek, edo hobeto esanda, norbaitek, planak aldarazi zizkion.

Azken bike-upelak bete eta Puertora eramateko gurdian jarri zituztenean, Pascualek bazkaltzera gonbidatu zuen, Julian kobratu eta alde egitekotan zegoela. Ez zion ezetzik esan. Azken finean, Pascualek lana eman zion, eta gainera, barne-*tik* ikusteko gogoz zegoen begiztatu zuen aurreneko aldian hain deigarria gertatu zitzaion etxea. Ez zuen sorpresa makala hartu ikusi zuenean altzari bikainak zeudela, alfonbra lodiak, apaingarriak, lanparak, eta, batez ere, pareta bat osorik hartzen zuen liburutegi bat, guztiz gauza esperogabea hura bezalako leku batean. Julianek ez zuen behin ere ikusi hainbesteko luxurik, ezta hainbeste liburu batera ere.

—Hilabeteotan zuri begira egon naiz; langile zintzoa eta gizon diskretua zara, eta ez duzu edaten. Nahi al duzu niretzat lan egin? —galdetu zion segituan nagusiak, mahaian eseri gabe zeudela oraindik—. Soldata finkoarekin; zortziehun ezkutu urtean, hori hasteko, eta egonlekua eta jatekoa etxean. Ni zaborra naiz, ez dut ez seme-alabarik ez bilobarik, eta buru gazte bat behar dut aldamenen. Zuk zintzo jokatu, eta nik asmatuko dut eskuzabala izaten.

Ezetz esatea izan zen Julianen lehenengo asmoa; eskaintza onartu egin zuen, ordea, denboraldi baterako behintzat. Hitz gutxiko gizona zen, baina azkarra erabakiak hartzeko orduan. Inolako prestakuntzarik ez zuen, eta, besterentzat lan egiteaz

*gainera, morroi, laborari edo portuko zamaketari gisa, ez zekien ondo zer egin zezakeen. Gainera, nahi zuenean joatea izango zuen, esan zuen bere artean. Bostekoa emanda zigilatu zuten bi gizonek beren hitzarmena, eta gustura jan zuten garbantzu-platerkada eder bana, behiki, oilaxko eta patatekin, hila bete haietan guztietan Julianek inoiz ikusi ez zituen bi emakumek zerbitzaturik. Pascual, inondik ere, sorpresa-iturri amaigabea zen.*

*Baina kontua ez zen hartan bukatu. Julianek irakurtzen eta idazten ikasi behar zuela setatu zen gizona, baita zenbakiak eta kontuak egiten ere. Gaztetan La Lagunako agustindarren ikaslea izan zela-edo, horrelako zerbait ere esan zion Juliani, baina ez zion azalpen handirik eman. Julianek ordu asko eman zituen ikasten, uda osoan eta udazkenaren zati handi batean, basoko lanaren garaia berriz etorri zen arte, zeinak burutik inoiz ere pasatuko ez zitzaion jardun batean harrapatu baitzuen. Bailaran, parrokiako eskoletara joan izan zen, baina umetan bakarrik. Han apaizarekin zer edo zer ikasi zuen irakurtzen eta idazten, baina katekesia utzi bezain pronto dena ahaztu zitzaion. Bere aitak esaten zuenez, ikastea denbora galtzea zen, gero inoiz ez zuen ikasketen premiarik izango-eta. Alabaina, zenbat eta gehiago aurreratu, orduan eta gustu handiagoa hartzen zien Julianek ikasketei, eta bere patroiairen liburutegiko liburu batzuk hartzera ere animatu zen, ordurako bere hezitzailea ere bazen-eta, nahiz eta behin eta berriz esaten zion bikearen negozioaren gorabeherak jakin behar zituela ondo, eta baita beste negozio batzuenak ere, eta, horrez gainera, uharteko antolamendu politikoaren berri ere behar zuela jakin, derrigorrezko gauza, baldin Tenerifeko goi mailako gizartean nor izatera heldu nahi bazuen.*

*—Kabildoarekin borrokatu beharra dago. Kabildoko kideek bikearen salmenta menderatu nahi dute, aitzakia jartzten dute*

*basoak zaindu nahi dituztela, eta bikearekin gabiltzanoi ez digute gure lana egiten utzi nahi –esaten zuen Pascualek.*

*–Lurrak negar egiten du nagusia aberasten duen eta guztiona den izadia pobretzen duen zubaitz bat moztzen dugunean –esaten zuen Taorok bere aldetik.*

*Ahal zuen guztietan igotzen zen Julian kapatazaren txabolara. Bazuen gizon hark indarrez erakartzen zuen zerbait, beraren gogoak letretan ezjakina baina eskarmentuan aberatsa zen Taororen aldamenean pasatzen zituen bake-une haien premia izango balu bezala. Bere aita Taoro bezalakoa izatea gustatuko zitzaion, hitz egin ahal izateko norbait, isilka bazen ere, isiltasunak askotan hitzek baino gehiago esaten du-eta. Kubatik heldutako itsasontzietan erositako tabakoa erretzen erakutsi zion Taorok, uhartean eskala egiten baitzuten Penintsula aldera bidaia jarraitu aurretik. Biak aritzen ziren erretzen, txabolako atean eserita, ilunabarrean sumendiaren siluetari begira, txonta urdinaren kantu lakarra eta usoen kantu guturala adituz, guantxe zaharrak uharteko usadioak azaltzen zizkion bitartean, bere usadioen hain diferenteak. Baina bere gai gogokoenaz, bere herriaren historiaz, hizketan bukatzen zuen Taorok beti.*

*–Bencomo handiak, Tinerfe Handiaren semeak, Acente-joko batailan garaitu zituen gaztelarrak, eta Aguerere-koan hil zen hirurogeita hamar zituela. Haren semeak, Bentorrek, Tigaiatik behera bota zuen bere burua konkistatzaileen eskuetan ez erortzeko. Herriak ezkutuko leku batean lurperatu zituen haien saxoak, etsaiak ez zitzaizkan profanatu –kontatu zion egun batean.*

*–Haien saxoak? –galdetu zuen Julianek.*

*–Haien momiak, alegia. Gure arbasoek kobazuloetan lurperatzen zituzten hildakoak, gorputzak hustu eta lehortu ondoren.*

*–Zergatik?*

–Herritik gertu egon zitezten, ondorengoak ondo zaindu zitezaten. Gaizkileak Echeideko kobazuloetara eramaten zituzten, eta, era horretan, ezin ziren atera eta ez zieten biziei trabarik egiten.

–Baina orain ez da horrelakorik egiten, ezta?

–Hirurehun urte badira kristauak garela, konkistaz geroztik.

Taorok irribarre egin zuen, atxiki bat egin zion zigarroari eta urrutian finkatu zuen begiratua, baina galderari zuze-nean erantzun gabe.

Ilunabar haietako batean ikusi zuen Julianek aurrenekoz neska, lanegun gogor baten ondoren. Arin-arin zetorren txabolara zeraman maldan gora: kolorezko puntu bat paisaia okre-kolorean. Kostatu egin zitzaion erreakzionatzea, leku haieran obikoa ez zen presentzia hark harrituta, eta ez zuen ahoa ireki neskatxa –marra koloreduneko gona, gonarekin bat zetorren gerruntzea, txanbra zuria soinean, eta zapi batez eta palmondozko kapela batez estalia burua–gizonengandik berrogeita hamar bat pausora egon zen arte.

–Baten bat dator aldapan gora –esan zuen.

–Itabisa da, nire biloba –jakinarazi zion Taorok–. Maria Candelaria du bataio-izena.

Zalgurdia kolpetik gelditu zen, eta Julianen oroitzapenak eten eta ia-ia erori zen aurreko eserlekura.

–Barka, jauna –esan zuen gidariak–. Gurdi batek bidea eragotzi digu.

Handik minutu batzuetara, Julian Zautuola Bilboko bere etxebizitzan zegoen, San Migel kaleko bost solairuko eraikin batean, Bidebarrietakoarekiko izkinan.